



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

BEHARGINTZAK LEHEN LAGUNTZAKO ETA UR SOROSPEN INGURUKO IKASTARO BAT ANTOLATZEN DU.

Ikastaroa 128 ordukoa izango da eta bi zati izango ditu, alde batetik lehen laguntzako ikastaroa eta bestetik ur sorospenekoa

Kurtsoan 20 pertsonak parte hartu ahal izango dute eta hiru diploma ofizial jasoko dituzte. Hauek baliokoak izango dira, alor honetako lanpostu bat lortzeko.

Amanzkomunazgoan dauden herrietako biztanleek hartu dezakete parte eta baita ere Berrizko zein Garaiko lagunek ere. Ikastaroa Gurutze gorriak emago du.

Durangaldeko Behargintza, Amanzkomunazgoko eskualdeko enplegu agentziak, ikastaro bat antolatu du sorospen eta lehen laguntzen inguruan. Kurtsoa datorren urriaren 7an hasiko da eta azaroaren 23rarte iraungo du. Helburua, interesatuak dauden jendeari alor honetako formazioa eskeintzea da, beharrezko titulua jaso dezaten eta honek lagundu diezaiekete enplegu postu bat lortzeko. “Behargintzatik hasieratik hona egin dugun bezala, gure asmoa eskualdeko pertsonen formazio on bat eskeintzea da, hauek aukerak izan ditzaten lanpostu bat lortzeko” azaldu du Oskar Zarrabeitiak, Amankomunazgoko lehendakariak. Ikastaro honekin ikasleek jasoko duten tituluak hauek izango dira: lehen sorospeneko diploma, ezinbesteko oinarriko bizi euskarriaren diploma eta KDE (Kanpoko Desfibrilatzailea Erdi-automatikoa) eta uretako sorospen diploma. Kurtso hau Gurutze Gorriak emango du.

Izena emateko epea hasita dago datorren irailaren 20rarte eta lekuak mugatuak izango dira, bakarrik 20 lagunentzeko. Interesatuak Behargintzara jo beharko dute (Hizkuntz eskola ondean, Laubideta kalean 6an) izen orria betetzeko, goizeko 8:30etatik 14:00tara. Guztira 128 ordu izango dira, lehen 48 orduetan lehen sorospeneoak izango dira eta gainontzekoak uretako sorospenei dedikatuak.

Klaseak bi zatitan bananduta egongo dira, lehenak Behargintzan burutuko dira astelehenetik ostiralera arratsaldeko 18:00etatik, 21:00etara eta gainontzekoak asteburuetan, inguruko igerileku batean eta zehazteko dagoen ordutegi batean burutuko dira. Kurtsoan parte hartzeko froga bat gainditu beharko dute, 200 metro lau minutu baino gutxiagotan eta 25 metro ur azpitik.

16 urte baino gehiago dituzten pertsona zuzenduta dago ikastaro hau eta Amankomunazgoko herrietako zein Garai eta Berrizko biztanleek parte hartu dezakete. Kurtso hasieran 5 euro ordaindu beharko dira eta dagozkien beharrak bete eskero, dirua ordainduko zaie.